

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2019 Foru Dekretua, azaroaren 26koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Berdintasun Batzorde Iraunkorraren sorkuntza, osaera eta funtzionamendua

4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak beharrezkoa den esparrua deskribatzen dute enpresek eta administrazio publikoek neurriak gara ditzaten beren antolamenduan eta langileen kudeaketan berdintasuna sustatzeko.

Ildo horretatik, 3/2007 Legearen 45. artikulua adierazten duenez, enpresak behartuta daude tratu eta aukera berdintasuna errespetatzera eta, horretarako, neurriak ezarriko dituzte emakumeen eta gizonen artean inolako lan diskriminaziorik ez gertatzeko. Neurri horiek langileen legezko ordezkariekin negoziatu eta, hala dagokionean, adostuko dira. Gainera, 250 lagunetik gorako enpresetan, berdintasun neurriak berdintasunerako plan bat egiteko eta aplikatzeko bideratuko dira. Bestalde, 46. artikuluan xedatzen da berdintasun planetan zehaztuko direla berdintasunaren arloko helburuak, estrategiak eta jokabideak, bai eta zehaztutako helburu horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrak ere.

Langileen ordezkariekin negoziatzeko betebeharrak honako hauek sortzeko betebeharra iradokitzen du: batzorde paritarioa, baldintza berdinetan, sindikatuen edo langileen edo patroien ordezkariak. Ulertzen denez, Berdintasun Batzorde Iraunkorrak organo paritarioa bat izan behar du, hitzarmen kolektiboen negoziazio mahaiei eta batzorde paritarioei lotua, eta haren lan sistema adostasuna bilatzea izango da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak 46. eta 47. artikuluetan xedatzen duenari jarraituz.

Dekretu hau izapidetzeko, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak bete dira. Aipatutako foru dekretuak hauek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero inpaktuen txostenak egiteko gidak eta araugintzarako jarraibideak. Horrela, bada, adierazitako aurrekarietan nahikoa justifikatu da arautu beharra, eta gainera, arau jardun proportzionatua izango litzateke.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Gaia

Arabako Foru Aldundiaren Berdintasun Batzorde Iraunkorra sortzen da, eta dekretu honen bidez arautzen dira haren eraketa, osaera eta funtzionamendua.

2. artikulua. Berdintasun Batzorde Iraunkorra

Berdintasun Batzorde Iraunkorra talde anitzeko organoa da, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari atxikia, Arabako Foru Aldundiaren berdintasunerako barne plana egiteko, eta plan horretako ekintzen jarraipena eta ebaluaketa egiteko ardura duena.

3. artikulua. Berdintasun Batzorde Iraunkorraren eginkizunak

Honako hauek dira Berdintasun Batzorde Iraunkorraren eginkizunak, genero ikuspegia txertatuta gauzatu beharrekoak:

- a. Berdintasunerako barne plana egiteko lan prozesua onestea.

b. AFAko emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoeraren analisia egin eta diagnostikoa onestea.

c. Berdintasunerako barne plana eta haren aldaketen analisia egitea eta hasierako onespena ematea.

d. Egindako bilkuren aktak onestea.

e. Berdintasun Planaren nola ari den gauzatzen jarraitzea eta ebaluatzea.

f. Berdintasun plana garatzen ari den bitartean sor daitezkeen arazoak identifikatzea eta haienzako irtenbideak bilatu eta proposatzea.

g. Gomendioak egitea plana hobeto garatzeko.

h. Ekintzak egokitzea planean aurreikusten ez diren gertakizunen arabera.

4. artikulua. Berdintasun Batzorde Iraunkorraren osaera

1. Arabako Foru Aldundiaren Berdintasun Batzorde Iraunkorra osatzean ordezkari itzuliak orekatuaren printzipioa bermatuko da, Aldundiak eta langileek ordezkari itzuliak kide kopuru bera izanez. Honela osatuta egongo da:

a. Arabako Foru Aldundiaren aldetik, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren eta Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritzaren titularrak, eta ordezkari itzuliak izango dira haien zerbitzuen pertsona titularrak.

b. Sindikatuek hautatutako hiru pertsona. Libreki hartuko du haiek izendatzeko, indargabetzeko eta zein egoera izango duten zehazteko erabakia, eta horretarako baldintza bakarra izango da Batzordeari jakinaraztea.

2. Berdintasun Batzordeko lehendakaria Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria izango da.

3. Batzordearen idazkari Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun zerbitzuburua izango da; hitza izango du, baina boto eskubiderik ez.

4. Zenbait egoeratan, Batzordeak bilerarako deia egin ahal izango die beren espezializazioagatik edo kaudimen teknikoagatik gai zerrendako gai jakin batzuei buruzko informazioa eta aholkularitza eman dezaketen pertsonari. Pertsona horiek aholkulari gisa bertaratuko dira eta hitza izango dute, baina ez boto eskubiderik.

5. artikulua. Berdintasun Batzorde Iraunkorraren funtzionamendua

1. Bilkurarako deialdia batzordeburuak egingo du eta aztertu beharreko gaien zerrenda igorriko die batzordeko kideei, baita aztertu, eztabaidatu eta bozkatuko diren proposamenen, kontsulta, txosten eta agirien kopia ere.

2. Deialdia egiten denetik bilera egin arte gutxienez hamar lanegun igaro ahal izango dira, aparteko bileren kasuan izan ezik; kasu horretan, epea gehienez bost egunekoa izango da.

3. Bileren akta egingo da, eta han jorratutako gaiak, lortutako akordioak, aurkeztutako agiriak eta hurrengo bilerarako data jasoko dira. Adostasunik egon ezean, ordezkari bakoitzak defendatu duen jarrera jasoko da.

Akta horiek publikoak izango dira eta eskatzen duenaren esku egongo dira, baldin eta bilkura egiten denetik gutxienez hamabost egun igaro badira.

4. Berdintasun Batzorde Iraunkorraren kideek bermatu egingo dute diagnostikoa eta berdintasun plana egiteko prozesuan AFAk emandako datuen konfidentzialtasuna, legeriak kasu horietan datuen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruz ezarritako eskakizunen arabera.

5. Dekretu honetan arautu gabe dagoen guztian, Sektore publikoko araubide juridikoaren oinarritzeko arauak kide anitzeko organoetarako xedatutakoa aplikatuko da Berdintasun Batzorde Iraunkorraren funtzionamenduan.

6. artikulua. Berdintasun Batzorde Iraunkorraren bilkuren erregimena

1. Berdintasun Batzorde Iraunkorrek behar beste bilera egingo ditu Berdintasuneko Barne Plana egiteko prozesua garaiz eta forma egokian garatzeko. Beti ere, ohiko bilkuran bilduko da, gutxienez, 3 aldiz: batean, eratzeko eta lan prozesua onesteko; beste batean, diagnostikoa onesteko; eta beste batean, aipatutako barne planari hasierako onespina emateko.

Era berean, presako arrazoiengatik edo hala komeni delako, aparteko bilkurak egin ahal izango dira batzordekideetako baten ekimenez, baldin eta aldeetako bakoitzaren ordezkarien erdia ados badago.

Aparteko bilkurarako deialdia egiteko eskaera idatziz egingo da, eta aztertu beharreko gaien proposamen arrazoitua jasoko du. Kasu horretan, eskaera egin eta hurrengo hamabost egunen barruan egingo du batzordeburuak aparteko bileraren deialdia, eta gai zerrendan eskatu diren puntuak agertuko dira nahitaez.

2. Berdintasun plana garatzeko eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Berdintasun Batzorde Iraunkorrek gutxienez bi ohiko bilkura egingo ditu urtean: bata, urte hasieran, planaren garapenaren ebaluazioa egiteko eta hurrengo urteko plangintza egiteko, eta, bestea, urtearen erdialdean, planaren garapenaren jarraipena egiteko.

Era berean, aparteko bilkurak egin ahal izango dira, aurreko apartatuan Barne Plana egiteko ezarri diren eskakizun berekin.

7. artikulua. Bertaratze quoruma eta Berdintasun Batzorde Iraunkorraren erabakiak

1. Berdintasuneko Batzorde Iraunkorra baliozko eran eratzeko eta erabakiak hartzeko, bertan egon behar du batzordeburuak edo berak eskuordetutako pertsonak edo batzordeburua ordeztzen duen pertsonak, baita, gutxienez, kideen erdiak ere.

2. Quorum hori bilerak iraun bitartean mantenduko da, eta quorumik ez badago, deialdia ondoriorik gabe geratuko da.

3. Berdintasun Batzorde Iraunkorrek bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko ditu bere erabakiak.

Azken Xedapena. Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

NEREA MELGOSA VEGA